

SH.E


egungoa

SINDIKAL HEZIKETA

2003 urteko
egoera **sozio-
ekonomikoaren**
azterketa.

1go seiñilekoa

LAB
Hezkuntza



**2003 urteko egoera
sozioekonomikoaren
azterketa. 1^{go} sei hilabetea**

Erredakzioa: **Rafa IZQUIERDO**

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa**




EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAIA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2003ko Iraila



2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa. 1^o seihilabetea

Lan merkatuaren bilakaera 2003ko lehenengo sei hilekoan.	5
- Enpleguak igoera txiki bat izan du lehenengo sei hilekoan.	5
- Langabeziaren jaitsiera apala.	6
- Ezegonkortasunak handia izaten jarraitzen du.	7
2003ko urtarriletik abuztura bitartean egindako kontratazioaren azterketa.	9
Eranskin estatistikoa.	13
- Lanaren egoera Hego Euskal Herrian. EPA-2003ko bigarren hiruhilekoan.	13
- Langabeziagatiko prestazioen babes-maila, 2002. urtean. Maila Kontributiboa.	14
- Langabeziagatiko prestazioen babes-maila, 2002. urtean. Maila Asistentziala.	14
- Langabeziagatiko babes-mailaren tasa gordina, 2002. urtean.	14
- Hego Euskal Herrian erregistratutako kontratuak. 2003ko urtarriletik abuztura bitartean.	15
- Hego Euskal Herrian erregistratutako kontratuak (Portzentaje bertikalak). 2003ko urtarriletik abuztura bitartean.	15
- Hego Euskal Herrian erregistratutako kontratuak (Portzentaje horizontalak). 2003ko urtarriletik abuztura bitartean.	16



Lan merkatuaren bilakaera

2003ko lehenengo seihilekoan

Nahiz eta nazioarteko hainbat erakunde ekonomiko zuhur azaldu diren mundurako behin eta berriz iragarri den susperraldi ekonomikoaren aurrean, eta hazkunde hori gidatzeko EBk erakutsi duen ezintasuna gorabehera, euskal ekonomiak nolabaiteko hobekuntza izan du aurtengo lehen seihilekoan.

Testuinguru horretan, oraindik ere zalantzak egon arren, enplegua ia %1,2 igo da sei hilabete horietan, eta, hortaz, Hego Euskal Herrian okupatutako pertsonen kopurua 1.147.000ra iritsi da 2003ko bigarren hiruhilekoan. Gutxienez horiexek dira INEk egindako Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestaren emaitzak (EPA).

Jarraitu baino lehen, EPA inkesta erabiltzeko arrazoia zein den argitu nahi dugu, hots, Hegoaldeko lau herrialdeentzako informazio estatistiko homogeneoa eskaintzen duela. Nolanahi ere, bai EPAk eta bai beste edozein inkestak dituzten mugak gogoratu behar ditugu berriz ere, laginketa-erroreak izan ditzaketelako: izan ere, Lan eta Gizarte Gaietarako espainiar ministerioaren arabera, 2002. urtean 4.896 gizonen batez beste-kobratu zituzten langabezia-prestazioak Nafarroan (kontributiboak, asistentzialak eta lan merkatuan integratzeko errenta aktiboa barne sartuta); EPA-



ren arabera, aldiz, garai bereko langabeen batez besteko kopurua haxe izan zen: 4.650 gizon!

Enpleguak igoera txiki bat izan du lehenengo seihilekoan

Oraingo okupazio maila 2002ko amaieran okupatutako biztanleriarekin alderatuz gero, urte erdi batean 13.400 lanpostu inguru sortu direla ikus dezakegu. Dena dela, soldatako pertsonen kopurua gehiago igo da,

zeren 20.300 pertsona gehiago baitaude beste norbaiten kontura lan egiten. Bi kopuruen arteko diferentziaren arrazoia da euren kontura lan egiten dutenen pertsonen kopurua jaitsi egin dela.

Lanaren egoerak lurraldez lurralde izandako bilakaerari dagokionez, azpimarratzekoa da enplegua Gipuzkoan eta Araban hazi zela erritmo handiagoan, hurrenez hurren %1,8 eta %1,5 igo baitzen. Nafarroan eta Bizkaian ere gora egin du okupatutako pertsonen kopuruak, baina igoerak

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa. 1^o seihilabetea

txikiagoak izan dira, alegia: %0,9 Bizkaian eta %0,8 Nafarroan.

Sexuei begira, enpleguaren hazkuntzaren erritmoa desberdina izan da sexu bakoitzaren kasuan. Azterlan batzuek modu desegokian erabiltzen dute "emakumeen enplegua lan merkaturia dinamizatzen ari dela" dioen esamoldea, sortzen diren lanpostu gehienak emakumeek okupatzen dituztela esateko.

Hala, aurtengo lehenengo sei hilabetean sortutako lanpostuen %60 gutxi gorabehera emakumeentzat izan dira. Beraz, emakumeen okupazioa %1,8 igo zen; gizonen okupazioa, berriz, gutxiago hazi zen, %0,8ra ere iritsi ez zelako. Hala eta guztiz ere, emakumeen enpleguaren bilakaera hori ez da uniformea izan lurralde guztietan. Bizkaian dagokionez, emakumeen enplegua nabarmenki jaitsi zen, eta Araban ere jaisteko joera izan zuen, jaitsiera askoz ere txikiagoa izan bazen ere.

Herrialde guztietan gora egin zuen adierazlea emakumeen jardueraren tasa izan zen. Fenomeno hori eta emakumeen enpleguaren gorakada estu lotuta daude emakumeak lan merkatura gero eta gehiago sartzeko joerarekin (gero ikusiko dugu sarrera hori zer baldintzetan gertatzen den). Joera horrek ahalbidetu du gizonen eta emakumeen okupazio mailen arteko diferentzia moteltzea; dena dela, bien arteko aldea aski nabaria da oraindik ere.

16 urte eta gehiagoko biztanleria hartzen badugu, zera ikus dezakegu emakumeen kasuan: bakarrik %45,2k dutela lanpostu ordaindu bat edo lanpostu baten bila ari direla; gizonen kasuan, berriz, jardueraren tasa %66,7 da. Eta enplegu tasari dagokionez (portzentaje horrek adierazten du zenbat pertsona dauden okupatuta 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean), emakumeen artean %39,8 da eta gizonen artean %63.

Txarragoa izan da gazteriak lehenengo sei hilabete hauetan bizi izandako lan egoera. 5.600 gazte inguruk euren lanpostua galdu zuten, eta, beraz, gazteen enpleguaren maila %6 jaitsi zen iazko amaieratik. Datu horiek garbi adierazten dute gazteria dela ekoizpen-katearen kate-maila ahulena: lanean pairatzen duten ezegonkortasuna eta errotazioa izugarriak dira.

Langabeziaren jaitsiera apala

Aurrean esandako guztiaren ondorioz, langabeziak jaisteko joera txiki bat erakutsi du, baina enplegu bilaketa aktiboari pertsona berriak gehitu izanak eragotzi egin du langabeziaren jaitsiera (-%2) handiago izatea.

Langabeen kopurua Bizkaian soilik igo zen. Langabeziaren igoera hori langabezia-tasarik handiena duen herrialdean gertatu da, hain zuzen ere. Hala, Bizkaiko langabeak biztanleria aktiboaren %11,5 izan ziren aurtengo bigarren hiruhilabetean.

2003 ko 2.hiruhil.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
INEM*	9.385	40.297	19.964	16.720
E.P.A.	12.000	59.800	17.800	13.000
P.R.A.	11.400	45.700	25.500	-

* INEMen datuak ekainean erregistratutako langabeen kopuruak dira.

Beste alde batetik, hasieran esan dugun bezala, langabeen kopurua zenbatzerakoan badira desberdintasun nabariak, kontsultatutako iturriaren arabera. Bigarren hiruhilekoko EPAren arabera, Hego Euskal Herrian 103.000 langabe zeuden, gutxi gorabehera. INEMen bulegoetan erregistratutako pertsonen kopurua, haatik, ez zen 90.000ra iritsi; horrek ez gaitu harritu behar, zeren kontuan hartu behar baitugu INEMekin sinatzen diren kontratuen %15 baino gutxiago gestionatzen dituela.

EPA inkesta iturritzat hartuta, langabezian dauden pertsonen ia %61 emakumeak direla esan dezakegu, emakumeen jarduera tasa berez txikia izan arren (gizonen tasa baino 22 puntu txikiagoa). Emakumeen langabezia-tasa %12 da, eta gizonena %5,5.

Langabeziarekin jarraituz, azpimarratu behar den beste puntu bat gazteriaren langabezia-tasa handia da. Gazteen enpleguaren egoera txarra langabezia-tasaren igoeran islatu da, bigarren hiruhileko horretan %12,6ra iritsi baitzen; Hego Euskal Herriko langabezia-tasa orokorra, berriz, %8,2 izan zen.

Ezegonkortasunak handia izaten jarraitzen du

Orain arte, okupazioan gertatutako aldaketez hitz egin dugu, baina ez dugu ezer esan enpleguaren kalitateaz. Bada, alde horretatik, azpimarratu beharra dago Hego Euskal Herriko aldi baterako kontratazioaren tasa %27,3 izan zela bigarren hiruhilekoan. Ezegonkortasun maila handi hori 1984tik aurrera espainiar Estatuan egindako erreforma laboralen prozesu luzearen ondorio da.

Egoeraren irrazionaltasuna muturrera iritsi da, hainbestera non OCDEk berak (munduko potentzia ekonomiko nagusiak biltzen dituen erakundea) berriki ohartarazi baitu "Espainiako enpleguaren errotazioa eta ezegonkortasuna izugarriak direla". Ohartarazpen horren xede bakarra "lan merkatuaren erreforma estruktural" berri bat abiatzeko espainiar gobernuak dituen tentazioak bultzatzea da. Hain zuzen ere, aldi baterako kontratazioaren tasa txikitzeko OCDEk proposatzen duen errezeta hau da: kontratu finkoa duten langileak kaleratzeagatik ordain-

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa. 1^o seihilabetea

tzen den kalte-ordaina murriztea, zeren eta, bere ustez, kontratu horiek aldi baterakoek baino "askoz ere berme gehiago" ematen baitituzte.

Enpresarien Zirkuluak ("Círculo de Empresarios") bere egin du estrategia hori, zeren kontratu mugagabe bakarra ezartzearen alde azaltzen baita. Kasu horretan, kaleratzeagatik ordainduko litzatekeen kalte-ordaina hauxe izango litzateke: 20 egun lanean emandako urte bakoitzeko; kontuan hartu behar da, alde horretatik, *kontratu mugagabe arruntaren* kasuan 45 egun ordaintzen direla urteko, eta *enplegua sustatzeko kontratu mugagabearen* kasuan 33 egun (kaleratzea bidegabea izanez gero).

Enpresaburuen *lobby* horren iritziz, kaleratzearen baldintzetan gaur egun dauden desberdintasunak -kontratu moten arabera- aldatu gabe mantentzea "diskriminazioa eta langabezia" defendatzea da. Beraz, kaleratzea gehiago liberalizatzeko eskariei beste eskari bat gehitu zaie orain, hots: kaleratzea merkeagoa izatea, kontratu mugagabea dutenen "pribilegioak" ezabatuz, zeren eta, "horren eraginez -diote-, kaleratzen dituzten langile gehienak kontratu mota hori ez dutenak izaten baitira".

Hego Euskal Herriari dagokionez, aldi baterako kontratazioaren tasak EBko batez besteko tasa baino bi aldiz handiagoa da -EBko oraingo tasa %13,7

da-. Dena dela, alderdi horretan ere desberdintasun nabariak daude sexua-ren eta adinaren arabera.

Hegoaldeko soldatako emakumeen kasuan (soldata baten truke norbaiten kontura lan egiten dutenak), aldi baterako kontratuen tasa %32,7 da, eta, beraz, hirutatik batek aldi baterako lan harremana du. Garbi dago, jakina, gazteria dela gaitz hori gehien pairatzen duen sektorea. Aldi baterako kontratazioaren tasa %66 da 25 urtetik behera-ko gazteen artean; hau da, kontratua duten hiru gaztetatik bik aldi baterako lan harremana dute.

Ezgonkortasun maila ikaragarri horien atzean aldi baterako kontratu mota ugari aurkitzen ditugu; mota horietako batzuek, gainera, hobariak dituzte Gizarte Segurantzaren kotizazioetan.

Patronalak aldi baterako kontratu horiek bere nahiera erabiltzeak -eta batzuetan iruzurra eginez- muturrera eramane du lan errotazioa. Egoera horrek eragotzi egiten du prestakuntza egokia lortzea eta lanpostu guztiek berez ematen duten esperientzia eskuratzea.

Lan baldintza penagari horiek eta aldi baterako lan harreman guztietan gertatzen diren presioak dira aldi baterako lanpostuen istripu kopuru handiaren errudunak: kontratu horiek dituzten langileen istripu tasa kontratu mugagabea dutenena baino bi aldiz handiagoa da.

2003ko urtariletik abuztura bitartean egindako kontratazioaren azterketa

Urtariletik abuztura bitartean (bi hilabete horiek barne hartuta) 594.917 kontratu erregistratu ziren INEMen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko bulegoetan; hau da, iazko garai berean sinatutakoak baino 15.493 gehiago. Baina kontratazioaren bolumenean gertatutako hazkunde txiki hori aldi baterako kontratuen igoeraren ondorio da, ez beste inolako faktoreren ondorio. Zehazki, aldi baterako 17.070 kontratu gehiago sinatu ziren.

Kontratazio mugagabearen bilakaera, aldiz, oso bestelakoa izan da. Aztertutako garaian 47.859 kontratu mugagabe egin ziren, mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratuak barne. Horrek esan nahi du aurreko urteko lehenengo zortzi hilabeteetan baino 1.577 kontratu mugagabe gutxiago sinatu direla. Kontratazio mugagabea %3,2 jaitsi da, eta horrek berretsi eta are larriago bihurtzen du aurreko urteetan ere atzemandako joera.

Hala, ikus dezakegunez, kontratu mugagabeak aurten egindako kontratu guztien %8 dira; 2002. urtean, berriz, portzentaje hori %8,5 izan zen garai berdinean. Logikoa denez, aldi baterako kontratuak gainerako %92 izan dira, iaz baino puntu erdi gehiago.

Horiexek dira, laburbildurik eta orokorrean ikusita, erregistratutako kontrata-



zioaren datu nagusiak. Horrez gain, baina, garrantzitsua da sexuaren eta adinaren arabera gertatutako diferentziak zein diren ikustea.

Gizonen kasuan, kontratu mugagabeak sinatutako kontratu guztien %9 izan ziren; emakumeei egindako kontratuen kasuan, aldiz, garai horretan %7,1 soilik izan ziren mugagabeak. Datu horiek erakusten digutenez, kontratazio mugagabearen bidez pertsonala enplegatzeke patronalak duen joera txikia are txikiagoa da emakumeak kontratatzerakoan. Urtez urte, jokabide hori errepikatu egiten dela ikusten dugu.

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa. 1^o seihilabetea



Bestalde, 25 urtetik beherako gazteek sinatutako aldi baterako kontratuen proportzioa emakumeena baino are handiagoa da. Hala, gazteei egindako kontratuen %5,1 soilik izan ziren mugagabeak.

Kontratazio mugagabearekin jarraituz, beste puntu interesgarri bat kontratu mota bakoitzak izan duen bilakaera aztertzea da, zeren mota guztiek ez baituzte berme berdinak (kale-ordaina) kaleratzearen aurrean.

Kontratu *mugagabe arruntak* (lanaldi osokoa, lanaldi partzialekoa eta etenka-ko finkoak barne sartuta) kontratu mugagabeen %28,6 dira, eta kontratazio guztiaren %2,3. Kontratu mota horretan, kaleratze bidegabeari dagokion kalte-ordaina 45 eguneko da lanean emandako urte bakoitzeko, 42 hilabete-ko soldata gehieneko muga izanik.

Kontratu mugagabearen gainerako modalitateak enplegua sustatzeko neu-

rrien mende daude, eta, beraz, enpresariak hobari ederrak dituzte Gizarte Segurantzari ordaintzen dizkioten kuentetan; gainera, kaleratze bidegabeari ordaintzen dituzten kalte-ordainak 33 egunekoak dira lanean emandako urte bakoitzeko, 24 hilabete-ko soldata gehieneko muga izanik. Mota horretako kontratu gehienak aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzetik datoz. Guztira, enplegua sustatzeko kontratu mugagabe berriak eta aldi baterako kontratuak modalitate horretara pasatzeagatik sinatutakoak kontratu mugagabeen %71 dira.

Aldi baterako kontratu motei dagokienez, azpimarratzekoa da gehien erabiltzen direnak, iraganean bezala, *ekoizpenaren gorabehera aurre egiteko aldi baterako kontratua eta obra edo zerbitzu jakinako kontratua* direla. Bi modalitate horiek (lanaldi partzialekoak barne) erregistratutako kontratazio guztiaren %38,8 eta %35,1 dira, hurrenez hurren.

Gehien erabili den hirugarren kontratu mota bitartekotasun kontratua izan da: sinatutako kontratu guztien %15,2. Modalitate hori lanpostu erreserbarako eskubidea duten langileak ordezkatzeko erabiltzen da, baita aukeraketa prozesuak egiten diren bitartean lanpostuak aldi baterako betetzeko ere.

Bitartekotasun kontratuaren xedea, printzipioz, oso zehatza da eta beraren erabilera oso mugatuta dago. Dirudienez, baina, ez da kasualitatea modalitate hori gehienbat emakumeak zerbitzuen sektorean kontratatuzko erabiltzea. Izan ere, egiten diren bitartekota-

sun kontratuen artean, lautatik hiru emakumeei egiten zaizkie. Hala, emakumeei egiten zaizkien kontratu guztien %23,3 *bitartekotasun* kontratuak dira; gizonen artean, aldiz, modalitate hori kasuen %7,4an soilik erabiltzen da. Gazteen artean (25 urtetik behera), sinatutako kontratuen %11,6 bitartekotasun kontratuak dira.

Gainera, aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena aztertzen badugu, iraupen laburrenekoak *bitartekotasun kontratuak* direla ikus daiteke: gehienek hilabete batez edo gutxiago irauten dute. Horrenbestez, kontratu mota hori da, neurri handi batean, emakumeek lan alorrean pairatzen duten ezegonkortasun eta errotazio maila handiaren erruduna.

Bukatzeko, ezin dugu atal hau bukatu *langileak eskura jartzeko kontratuak* aipatu gabe, hau da, ABLEen bitartez egiten direnak. Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren arabera, aurtengo bost hilabeteetan 69.129 kontratu sinatu ziren ABLEekin Hego Euskal Herrian, hau da, iazko garai berdinean baino 4.690 gehiago. Horren eraginez, ABLEen bitartekotza %7,3 igo da aldi horretan.

ABLEen bidezko kontratuen goranzko joerak garbi adierazten du oraindik ere asko falta zaigula kontratu horien kopurua mugatzeko (eta are gehiago kontratu horiek desagerrarazteko), ezegonkortasun eta esplotazio tresna diren aldetik. Maiatza arteko datuek erakusten dutenez, ABLEek gestionatutako kontratuak erregistratutako kontratazio guztiaren %19,3 dira. Portzentaje hori %18,1 izan zen iaz.

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa. 1^o seihilabetea

Eranskin

estatistikoa

LANAREN EGOERA HEGO EUSKAL HERRIAN.

EPA - 2003ko bigarren hiruhilekoan

BI SEXUAK	2003ko 2. hiruhil.	2002ko 4. hiruhil.	DIF.
OKUPATUAK	1.146.900	1.133.500	13.400
LANGABEAK	102.700	104.800	-2.100
AKTIBOAK	1.249.600	1.238.300	11.300
LANGABEZIA-TASA	8,2	8,5	-0,2
ENPLEGU-TASA	51,1	50,5	0,6
JARDUERA-TASA	55,6	55,2	0,5
ALDI BATERAKO KONTRATU- TASA	27,3	28,6	-1,3
16 urtetik gorako biztanleria	2.245.900	2.244.800	1.100

Soldatako biztanleria	
Guztira	921.900
Mugagabea	669.800
Aldi baterako	252.100
Langabezian	
Urtebete baino gehi.	41.400
2 urte baino gehiago	25.900

EMAKUMEAK	2003ko 2. hiruhil.	2002ko 4. hiruhil.	DIF.
OKUPATUAK	458.500	450.400	8.100
LANGABEAK	62.400	64.600	-2.200
AKTIBOAK	520.900	515.000	5.900
LANGABEZIA-TASA	12,0	12,5	-0,6
ENPLEGU-TASA	39,8	39,1	0,7
JARDUERA-TASA	45,2	44,7	0,5
ALDI BATERAKO KONTRATU- TASA	32,7	37,0	-4,3
16 urtetik gorako emakumeak	1.153.300	1.152.300	1.000

Soldatakoak	
Guztira	384.600
Mugagabea	259.000
Aldi baterako	125.600
Langabezian	
Urtebete baino gehi.	27.600
2 urte baino gehiago	18.900

GIZONAK	2003ko 2. hiruhil.	2002ko 4. hiruhil.	DIF.
OKUPATUAK	688.300	683.100	5.200
LANGABEAK	40.300	40.200	100
AKTIBOAK	728.600	723.300	5.300
LANGABEZIA-TASA	5,5	5,6	0,0
ENPLEGU-TASA	63,0	62,5	0,5
JARDUERA-TASA	66,7	66,2	0,5
ALDI BATERAKO KONTRATU- TASA	23,5	22,7	0,9
16 urtetik gorako gizonak	1.092.500	1.092.400	100

Soldatakoak	
Guztira	537.200
Mugagabea	410.700
Aldi baterako	126.500
Langabezian	
Urtebete baino gehi.	13.800
2 urte baino gehiago	6.900

GAZTEAK (25 urtetik behera)	2003ko 2. hiruhil.	2002ko 4. hiruhil.	DIF.
OKUPATUAK	88.000	93.600	-5.600
LANGABEAK	24.200	24.500	-300
AKTIBOAK	112.200	118.100	-5.900
LANGABEZIA-TASA	21,6	20,7	0,8
ENPLEGU-TASA	32,2	33,3	-1,1
JARDUERA-TASA	41,1	42,0	-0,9
ALDI BATERAKO KONTRATU- TASA	66,0	66,0	0,0
16 eta 25 urte bitarteko gazteak	273.300	281.300	-8.000

Soldatakoak	
Guztira	82.300
Mugagabea	28.000
Aldi baterako	54.300
Langabezian	
Urtebete baino gehi.	6.200
2 urte baino gehiago	3.300

LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN BABES-MAILA, 2002. URTEAN. MAILA KONTRIBUTIBOA

2002	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	%38,19	%52,70	%29,31
BIZKAIA	%30,17	%41,84	%22,18
GIPUZKOA	%37,05	%49,96	%29,17
NAFARROA	%39,82	%55,61	%31,17
HEGO EUSKAL HERRIA	%34,52	%47,30	%26,45

LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN BABES-MAILA, 2002. URTEAN. MAILA ASISTENTZIALA

2002	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	%14,48	%19,21	%11,59
BIZKAIA	%19,42	%30,95	%11,52
GIPUZKOA	%17,55	%19,56	%16,32
NAFARROA	%18,98	%22,26	%17,18
HEGO EUSKAL HERRIA	%18,35	%25,55	%13,81

LANGABEZIAGATIKO BABES-MAILAREN TASA GORDINA*, 2002. URTEAN

2002	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	%52,67	%71,91	%40,90
BIZKAIA	%49,58	%72,79	%33,70
GIPUZKOA	%54,60	%69,52	%45,49
NAFARROA	%58,79	%77,87	%48,35
HEGO EUSKAL HERRIA	%52,87	%72,85	%40,26

* Ez daude sartuta Lan Merkatuan Integratzeko Errenta Aktiboa kobratzen duten pertsonak (pertsona onuradunak/lanik gabeko pertsonak)

OHARRAK:

Langabeziagatiko prestazioei buruz eskura ditugun azken datuei dagokienez, sexua aldagaia barne hartzen duten azkenak 2002. urtekoak dira. Langabeziagatiko babes-mailak kalkulatzeko INEMen erregistratutako langabeen kopuruak erabili dira.

HEGO EUSKAL HERRIAN ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK. 2003ko urtarriletik abuztura bitartean.

MODALITATEA	Guztira	Nekazari.	Industr.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	13.697	1.087	2.880	984	8.746	9.683	4.014	2.468
MINUSBALLATUAK	254	5	49	26	174	175	79	22
ENPLEG. SUSTATZEKO KONTRATU MUGAGAB.	11.047	117	2.178	697	8.055	3.569	7.478	2.174
MUGAGABE BIHURTUTAKO KONTRATUAK	22.861	185	6.376	2.121	14.179	13.793	9.068	5.423
KONTRATU MUGAGABEAK	47.859	1.394	11.483	3.828	31.154	27.220	20.639	10.087
OBRA EDO ZERBITZUA, GUZTIRA	209.106	4.734	25.032	48.100	131.240	128.853	80.253	66.328
EKOIZPENAREN GORABEHEREI AURRE EGITEKO ALDI BATERAKO KONTRATUA	230.826	2.033	33.480	8.734	186.579	114.514	116.312	85.888
BITARTEKOTASUNA	90.351	410	5.661	581	83.699	22.576	67.775	22.114
MINUSBALLATUAK, ALDI BATERAKO	640	7	185	36	412	400	240	88
LAN MERKATUAN INTEGRATZEKO ALDI BATERAKO KONTRATUA	2.219	77	4	27	2.111	1.009	1.210	353
64 URTEKO ERRETIRATUAK ORDEZTEKO	83	0	33	6	44	59	24	12
ERRELEBUA, GUZTIRA	1.819	5	1.233	90	491	1.472	347	423
ERRETIRO PARTZIALA	1.940	4	1.277	103	556	1.735	205	0
PRAKTIKAK	5.162	14	1.555	607	2.986	3.090	2.072	3.519
PRESTAKUNTZA	2.169	7	383	628	1.151	1.490	679	2.025
ALDI BATERAKO BESTE KONTRATU BATZUK	2.743	343	202	38	2.160	1.452	1.291	508
ALDI BATERAKO KONTRATUAK	547.058	7.634	69.045	58.950	411.429	276.650	270.408	181.258
KONTRATUAK, GUZTIRA	594.917	9.028	80.528	62.778	442.583	303.870	291.047	191.345

Iturria: INEM.

(1) Hauexek hartzen ditu barne: enplegua sustatzeko neurrien mende ez dauden lanaldi osoko kontratuak, lanaldi partzialekoak eta etenkako finkoak.

(*) Aldi baterako kontratu mota bakoitzak dagozkion aldi baterako kontratuak hartzen ditu barne.

HEGO EUSKAL HERRIAN ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (Portzentaje bertikalak). 2003ko urtarriletik abuztura bitartean.

MODALITATEA	Guztira	Nekazari.	Industr.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	%2,3	%12,0	%3,6	%1,6	%2,0	%3,2	%1,4	%1,3
MINUSBALLATUAK	%0,0	%0,1	%0,1	%0,0	%0,0	%0,1	%0,0	%0,0
ENPLEG. SUSTATZEKO KONTRATU MUGAGAB.	%1,9	%1,3	%2,7	%1,1	%1,8	%1,2	%2,6	%1,1
MUGAGABE BIHURTUTAKO KONTRATUAK	%3,8	%2,0	%7,9	%3,4	%3,2	%4,5	%3,1	%2,8
KONTRATU MUGAGABEAK	%8,0	%15,4	%14,3	%6,1	%7,0	%9,0	%7,1	%5,3
OBRA EDO ZERBITZUA, GUZTIRA	%35,1	%52,4	%31,1	%76,6	%29,7	%42,4	%27,6	%34,7
EKOIZPENAREN GORABEHEREI AURRE EGITEKO ALDI BATERAKO KONTRATUA	%38,8	%22,5	%41,6	%13,9	%42,2	%37,7	%40,0	%44,9
BITARTEKOTASUNA	%15,2	%4,5	%7,0	%0,9	%18,9	%7,4	%23,3	%11,6
MINUSBALLATUAK, ALDI BATERAKO	%0,1	%0,1	%0,2	%0,1	%0,1	%0,1	%0,1	%0,0
LAN MERKATUAN INTEGRATZEKO ALDI BATERAKO KONTRATUA	%0,4	%0,9	%0,0	%0,0	%0,5	%0,3	%0,4	%0,2
64 URTEKO ERRETIRATUAK ORDEZTEKO	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0
ERRELEBUA, GUZTIRA	%0,3	%0,1	%1,5	%0,1	%0,1	%0,5	%0,1	%0,2
ERRETIRO PARTZIALA	%0,3	%0,0	%1,6	%0,2	%0,1	%0,6	%0,1	%0,0
PRAKTIKAK	%0,9	%0,2	%1,9	%1,0	%0,7	%1,0	%0,7	%1,8
PRESTAKUNTZA	%0,4	%0,1	%0,5	%1,0	%0,3	%0,5	%0,2	%1,1
ALDI BATERAKO BESTE KONTRATU BATZUK	%0,5	%3,8	%0,3	%0,1	%0,5	%0,5	%0,4	%0,3
ALDI BATERAKO KONTRATUAK	%92,0	%84,6	%85,7	%93,9	%93,0	%91,0	%92,9	%94,7
KONTRATUAK, GUZTIRA	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

Iturria: INEM.

(1) Hauexek hartzen ditu barne: enplegua sustatzeko neurrien mende ez dauden lanaldi osoko kontratuak, lanaldi partzialekoak eta etenkako finkoak.

(*) Aldi baterako kontratu mota bakoitzak dagozkion aldi baterako kontratuak hartzen ditu barne.

**HEGO EUSKAL HERRIAN ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (Portzentaje horizontalak).
2003ko urtarriletik abuztura bitartean.**

MODALITATEA	Guztira	Nekazari.	Industr.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	%100	%7,9	%21,0	%7,2	%63,9	%70,7	%29,3	%18,0
MINUSBALLATUAK	%100	%2,0	%19,3	%10,2	%68,5	%68,9	%31,1	%8,7
ENPLEG. SUSTATZEKO KONTRATU MUGAGAB.	%100	%1,1	%19,7	%6,3	%72,9	%32,3	%67,7	%19,7
MUGAGABE BIHURTUTAKO KONTRATUAK	%100	%0,8	%27,9	%9,3	%62,0	%60,3	%39,7	%23,7
KONTRATU MUGAGABEAK	%100	%2,9	%24,0	%8,0	%65,1	%56,9	%43,1	%21,1
OBRA EDO ZERBITZUA, GUZTIRA	%100	%2,3	%12,0	%23,0	%62,8	%61,6	%38,4	%31,7
EKOIZPENAREN GORABEHEREI AURRE EGITEKO ALDI BATERAKO KONTRATUA	%100	%0,9	%14,5	%3,8	%80,8	%49,6	%50,4	%37,2
BITARTEKOTASUNA	%100	%0,5	%6,3	%0,6	%92,6	%25,0	%75,0	%24,5
MINUSBALLATUAK, ALDI BATERAKO	%100	%1,1	%28,9	%5,6	%64,4	%62,5	%37,5	%13,8
LAN MERKATUAN INTEGRATZEKO ALDI BATERAKO KONTRATUA	%100	%3,5	%0,2	%1,2	%95,1	%45,5	%54,5	%15,9
64 URTEKO ERRETIRATUAK ORDEZTEKO	%100	%0,0	%39,8	%7,2	%53,0	%71,1	%28,9	%14,5
ERRELEBUA, GUZTIRA	%100	%0,3	%67,8	%4,9	%27,0	%80,9	%19,1	%23,3
ERRETIRO PARTZIALA	%100	%0,2	%65,8	%5,3	%28,7	%89,4	%10,6	%0,0
PRAKTIKAK	%100	%0,3	%30,1	%11,8	%57,8	%59,9	%40,1	%68,2
PRESTAKUNTZA	%100	%0,3	%17,7	%29,0	%53,1	%68,7	%31,3	%93,4
ALDI BATERAKO BESTE KONTRATU BATZUK	%100	%12,5	%7,4	%1,4	%78,7	%52,9	%47,1	%18,5
ALDI BATERAKO KONTRATUAK	%100	%1,4	%12,6	%10,8	%75,2	%50,6	%49,4	%33,1
KONTRATUAK, GUZTIRA	%100	%1,5	%13,5	%10,6	%74,4	%51,1	%48,9	%32,2

Iturria: INEM.

(1) Hauek hartzen ditu barne: enplegua sustatzeko neurrien mende ez dauden lanaldi osoko kontratuak, lanaldi partzialekoak eta etenakako finakoak.

(*) Aldi baterako kontratu mota bakoitzak dagozkion aldi baterako kontratuak hartzen ditu barne.